

miaka2

STM | IKERKETA
KOADERNOAK

San Telmo Museoa

GREGORIO GONZÁLEZ GALARZA

SAN TELMO MUSEOAREN
ARGAZKI FUNTSEAN

Ikerketa

Elisa Querejeta Casares
Aranzadi Zientzia Elkartea



miaka2

IKERKETA KOADERNOAK

STM

San Telmo Museoa

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
F (00 34) 943 48 15 81
santelmo@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa



GREGORIO GONZÁLEZ GALARZA

SAN TELMO
MUSEOAREN ARGAZKI
FUNTSEAN

lkerketa

Elisa Querejeta Casares
Aranzadi Zientzia Elkartea

SARRERA	5
FUNTSA, MATERIALAK ETA EDUKIA	6
GREGORIO GONZÁLEZ GALARZA ETA CARMELO GONZÁLEZ CAMPANOREN BIZITZAK	7
LANA. POSTALAK ETA ALDIZKARI ILUSTRATUAK	8
Postalak	8
Aldizkari ilustratuak	11
LANA. ESTILOA. EGILEAK	13
IRUDI ESANGURATSU ZENBAITEN IRUZKINA	14
BIBLIOGRAFIA OROKORRA	20



F-002294. Gregorio González Galarza. *San Telmo Museoko klaustroa*. Donostia, ca. 1930. Paper baritatu. 22,8 x 16,5 cm.

SARRERA

Gregorio González Galarzaren eta haren seme Carmelo González Campanoren argazkiek osatzen dute STMren Galarza funtsa. Bat egiten du Donostian XX. mende hasieran lanean ziharduten Hermenegildo Otero eta Miguel Aguirre Aristiguieta argazkilari gorenekin, eta Donostia hiriko gizarte museo honek duen argazki-bildumarik behinenetako bat da.

3.068 argazki-dokumentuk osatutako multzo bat da, kristalezko negatiboak, azetatoak eta paperezko positiboak dituena, argazkilaria Andrés González Fernández Izquierdori 2001/04/16an erositako.

Galarza firmadunen bizitza eta lana aztertzeari ekin aurretik, zenbait arazo kontuan hartu behar dira; izan ere, gehienbat teknikoak izanagatik, argazki-multzoa baloratzeko eta haren historia egiteko tenorean badute garrantzirik, funtsaren beraren historia ehuntzen dute eta.

Alde batetik, bilduma honetan motibo berbera hainbat euskarri eta tamainatan aurkitzen da maiz. Alegia, irudi bera garai eta material desberdinetan kopiatua agertzen da; batetik, denboran behin baino gehiagotan erabiltzeko interesa adierazten digu horrek, eta, bestetik, irudiak euskarri eguneratuagoetan erakusten zaizkigunez, jatorrizko motiboaren interpretazio berriak izaten dira.

Beste arazo bat egiletzari dagokio; hau da, Galarza firmarenak omen ziren kopia batzuk beste batzuenak dira benetan; hala nola, Hermenegildo Oterorenak edo Miguel Aguirrearenak,

profesional haiekin biekin ikasi eta lan egin zuelako Gregorio González Galarzak, geroago bere bideari ekiteko haiengandik desberdindu bazen ere ⁽¹⁾.

Jorratu beharreko hirugarren arazoa aurrekoen ondorengoa da: Galarza diogularik, Gregorio González Galarzak (1869 – 1948) eta haren seme Carmelo González Campanok (1895 -1959) lan egin zuten argazki-firma esaten dugu, azken hau argazkilari gisa errolatua baitzen 1922az geroztik, Urbieta kaleko 16.ean, eta 1929az geroztik aitarekin batera ziharduen, Easo kaleko 33.ean ⁽²⁾.

Hiru arazo hauek direla eta, sarritan, hasieran uste baino katramilatsuago izan da jakitea zein den segidan aztertu eta zerrendatu behar ditugun dokumentu zenbaiten egilea.

Azkenik, komeni da aintzat hartzea Galarza firmaren irudiak, plazaratu orduko, oso ezagunak izan direla, bai postaletan, bai garaiko argitalpen ilustratuetan, eta harrez geroztik ere aldiro argitaratu izan direla; esate baterako, 1913an, hiriaren sutearen mendeurrena zela eta, edo gertakari beraren 150. urteurrenean, 1963an, edo, berrikiago, joan den 2013an. ⁽³⁾

1. Iturria: Iñaki Aguirre Franco argazkilaria 2014ko urriaren 28an egindako elkarrizketa.

2. Rodríguez Molina, M^a J.; Sanchís Alfonso, J. R.: *Directorio de fotógrafos en España*. Valentzia. 2013. 819- 820. orr.

3. 1813-1863-1963 *Hiriaren Berregintza eta Zabalkuntza Gogorarazteko Ekimen* delakoen artean, "Donostia, 1900-1920" González Galarzaren argazki-erakusketa.

FUNTSA, MATERIALAK ETA EDUKIA

Funtsak guztira 3.068 irudi ditu; haietarik 1.229 negatibo gelatinobromurozko kristaletan dira, 1.025 negatibo azetatotan, eta 735 argazki, gehienetan gelatinobromurozko paperetan kopiatuta.

Neurri arruntenak hauek izaten dira: 13 x 18 cm eta 9 x 14 cm.

Formatu hauek helburu komertzialeko postaletan positibatzeko pentsatuta daude, eta gai nagusia hiri-paisaia dute, Donostia, bereziki.

Sortu zireneko datak, aldiz, Galarza firmaren irudiak gutxi gora behera 1905 eta 1948 artean egin ziren.

Multzo osoan nabarmendu beharreko salbuespen bat ere badago: 30 x 40 cm neurriko 131 dokumentu paperetan. 1963an handitutako kopiak dira, sutearen ondoren hiria berreraiki zeneko 150. urteurrena zela eta.

GREGORIO GONZÁLEZ GALARZA ETA CARMELO GONZÁLEZ CAMPANOREN BIZITZAK

Gregorio González Galarza 1869ko ekainaren 6an jaio zen, Zegaman (Gipuzkoa), eta Donostian hil, 1948an⁽⁴⁾. Urte gutxi zituela, familia Donostiara lekualdatu zen. Postako funtzionario eta argazkilari komertzial gisa lan egin zuen; azken lan honetan geroago Carmelo semea batu zitzaion, esan bezala.

Helbidea Víctor Pradera kaleko 67.ean zuen, 3. eskuinekoan (gerra aurretik, Easo kalea) eta argazkilaritza gehienbat txartel postalak eta kanpoaldeko argazkiak egiten eman zuen.

25 urte zituela, Donostian ezkondu zen, María Campano Echeverriarekin, eta zazpi seme-alaba izan: Carmelo González Campano, 1895ean Donostian jaioa, Manuel, María del Carmen, Luisa, Joaquina, Andrés eta María Teresa.

Rodríguez Molina eta Sanchís Alfonsoren argazkilari-direktorioaren arabera⁽⁵⁾, G. G. Galarzak argazki-estudioa jardunean izan zuen Donostian (Gipuzkoa) Easo kaleko 33.ean, 1933., 1934. eta 1935. urteetan, eta *Kinoss* (González Galarza) izen komertzialaren

pean ere agertu zen Easoko 33.ean, 1929, 1931, 1933, 1934, 1935ean, bai eta *Kiro's* firmapean ere, Easoko 33.ean, 1926. urtean. Badakigu, hala ere, askoz lehenago hasia zela argazkilaritzan.

Carmelo González Campano semeak, aldiz, lehendabiziko estudioa Urbieta kaleko 14.ean izan zuen, 1922 eta 1928 artean⁽⁶⁾; pentsatzekoa da, baina, aitarekin lehenxeagotik lan egina zela. 1928an Carmelo Peña y Goñi kaleko 3.era lekualdatu zen lan egitera, eta 1929an jada Easo kaleko 33.ean aurkitzen dugu lanean. Azkenik, 1935ean, kale bereko 67.eko 5. eskuineko estudioa aldatu zen. Urte haietan guztietan bigarren mailako argazkilari-kategoria izan zuen arren, 1935-1936. urteetan hirugarrenekora iragan zen.

Aipatu beharra dago Carmelo Gonzálezek argazkilari gisa parte hartu zuela Gipuzkoako I Argazki Saloian, 1924ko udan⁽⁷⁾, garai hartako hiriko argazkilari ospetsuenak bertan zirela; hala nola, Antonio Castellanos "Kalero", Marcelo Mansilla, Indalecio Ojanguren, Eugenio Figursky, Pablo Montes "Norton", Willy Koch, Pascual Marín, Juan Aizpúrua, Martiarena eta konpainia, William Houben, Ricardo Marín "Photocarte", Francisco González eta Eduardo Arrillaga. Esan ere esan beharra dago albistearen hasierak zioela lanen kalitatea irregularra zela.

Gerra Zibila hasita, Carmelo Frantziara pasa zen, gurasoekin batera, eta geroago Madrilera, non txartel postalak egiteari ekin zion, estudioko argazkilaritzari baino gehiago.

César Antúnezek idazten duenez⁽⁸⁾, gerrak iraun bitartean Madrilén Ciudad Linealeko txalet batean bizi zen, Kondor Legioko goi-ofizial baten bazkide. Informazio-emailearen arabera, ofizial hark, diruz erreka jota utzi ez ezik, Carmeloren materiala Alemaniara eraman ere egin zuen. Orduan Carmelo Donostiara itzuli zen, eta bertan hil, 1959an. Azkenean, haren seme batek materiala San Telmo Museoari saldu zion, 2001ean, hil zen urte berean.

4. Donostiako Errolda Zibilaren 0328108/10 zenbakidun heriotza-agiriaren arabera.

5. Rodríguez Molina, M^a J.; Sanchís Alfonso, J. R. *Directorio de fotógrafos en España*. Valentzia. 2013. 819- 820. orr.

6. Ibidem, 819- 820. orr.

7. *El Pueblo Vasco*, 1924ko irailak 19.

8. César Antúnez, STM txostena, 2011.

LANA. POSTALAK ETA ALDIZKARI ILUSTRATUAK

Galarza firmako Gregorioren eta seme Carmeloren argazkien helburu nagusia txartel postal komertzialen ekoizpena izan zen, eta haietako asko garaiko Gipuzkoako aldizkari ilustratu nagusietan argitaratu ziren; adibidez, *Novedades*, *Vida Vasca*, *Guipúzcoa turística y Aristocrática*, bai eta *San Sebastián* aldizkarian ere.

Bestetik, oro har, irudietan agertzen diren gaiak Donostiako hirigintzaren garapenari buruzkoak izaten ziren, eta bertako kirol eta ikuskizunak eta etnografia, bai eta Gipuzkoako hainbat herritako ikuspegiak ere.

POSTALAK

G. G. Galarzaren postalen bilduma, hein handi batean, José Luis Sánchez Ayerzaren txartel postalen funtsean katalogatua dago, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Koldo Mitxelena Liburutegiaren Funttsaren baitan, eta Guregipuzkoa⁽⁹⁾ webaren katalogoan ere kontsulta daiteke. Kokapen biek ederki erakusten digute Galarza firmaren irudien motak eta nolakoak.

Gehienak izenburuz zerrendatutako sailletakoak dira, atzean honako hau inprimaturik dutela: *Edición G. G. Galarza, San Sebastián, Cliché González*, edo, bestela *Foto Galarza. V. Pradera, 67*. (Víctor Pradera kalearen izendapenak gerra ondoko garaia garamatza). San Telmo Museoa orijinalak dauzka, kristal, azetato edota paperetan.

Testuingurua eskaintze aldera, gogoratu beharra dago postalak⁽¹⁰⁾ Austrian sortu zirela, ohiko postaren beste modalitate baten gisara, 1869ko uztailaren 2an, eta Espainian 1871ko uztailaren 1ean hasi zirela erabiltzen; Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalak, ordea, ez zituen 1873 arte inprimatu.

Ordurako, argazkilaritzak –ofizialki 1839an asmatuta– bide luzea egina zuen, bai teknikaren aldetik, bai estiloarenetik. 1871n, kolodioi hezetik plaka lehorrera iragan zelarik, argazkizko irudiak hainbat arlotan erabiltzen hasi ziren, hala nola, erretratuetan, bidaietan, zientzian, harik eta XIX. mendeko 80 eta 90eko urteetan erruz hedatzeari ekin zitzaion arte.

9. <http://www.guregipuzkoa.eus>

10. Palá Laguna, F.: *La tarjeta postal ilustrada*. 2004.

1886ko abenduan ⁽¹¹⁾, zirkular baten bidez, Postaren Zuzendaritza Nagusiak txartel postalak argitaratzea baimendu zuen, non eta neurria ez baldin bazen 14 cm luze bider 9 cm zabal baino handiagorik, eta kalitate oneko kartoi meheetan inprimatzen baldin baziren, posta-bulegoetan erraz manipula ahal ziztaten.

Aurrealdean –zioen zirkularrak– jasotzailearen izen-helbideak baizik ezin zen idatzi, eskuz; bidaltzaileak bere izena edota helbidea ager zezakeen, baina betiere zigiluz, idazpuruz edo bestelako prozedura tipografikoz.

Carlos Teixidorek dioenez, Euskal Herriko postalik zaharrena seguru aski 1893. urtean Hauser eta Menetek “Recuerdo de Bilbao” izenburuz inprimatutakoa da; hain zuzen,

Landaburu Ahizpek (Cruz 11, Bilbo) inprimatu eta argazki-oinean data bera –1893– daraman Madrileko postal zaharrenaren antzekoa da, estiloari erreparatuta.

Bernardo Riego Amezagak (12), bestalde, honako sailkapen hau proposatzen du postalentzat:

a) 1896 – 1905: irudirik zaharrenak, fototipiaz edo kromolitografiaz eginak, edo eskuz koloreztatuak. Garai honetan irudia oraindik ez da nagusitu idatzizko prentsan.

b) 1906 – 1931: postalaren urrezko aroa, Lehen Mundu Gerraren inguruan Europan, eta II. Errepublikan eta Gerra Zibilean Espainian; eta

c) hirugarren garaia Bigarren Mundu Gerraren ostekoa da, koloretako

aldizkari ilustratuak agertzen direlarik. *Life* aldizkari amerikarra da adibiderik nabariena.

Orduan hasi zen postala mendearen hasieran izandako garrantzia galtzen.

Datu horien arabera, Galarza firma komertzialaren postalak urrezko garaiarenak dira, 1906tik Espainiako Gerra Zibilean hasiera artekoak.

9 x 14 cm-ko kartoi meheak dira; aurrealdean zuri-beltzeko irudia eta izenburua dute, eta atzealdean, bi zutabetan banatutako idazteko tartea gehi argitaratzailearen izena, kasu honetan Galarza firma bera.

Hona, adibide modura, G. G. Galarzak argitaratutako honako postal hau, aurrealdea, atzealdea, eta kristalezko matrize originala:

11. Teixidor, C: La tarjeta postal en España, 1892 – 1915. Espasa.1999

12. Riego Amezaga, Bernardo: España en la tarjeta postal: Un siglo de imágenes. Ed. Lunweg. 2010.



Aurrealdea:

Irudia inprimatua duen
9 x 14 cm kartoi mehea.

Sailaren 13. zb-koa.

Izenburua- **SAN SEBASTIÁN**
– Puente de Santa Catalina y
Playa de Gros.

Argazkia: www.todocoleccion.net

Atzealdea:


9 x 14 cm kartoi mehea.

Espazio bitan banatua, bidaltzailearen eta jasotzailearen testurako.

Behean ezkerrean: *Edición G. G.*

Galarza, San Sebastián, Cliché González.

Argazkia: www.guregipuzkoa.eus



F-005226

Gregorio González Galarza

Santa Katalina zubia eta Gros auzoa.

Donostia, 1905-1915.

Kristala gelatinarekin.

13 x 18 cm.

Irudia egin zeneko dataz eta edukiaz, hauxe esan dezakegu: 1905 – 1910 tartean eginda dagoela. Bertan antzematen da Urumearen eskuin aldeko bosgarren begia dagoeneko itxia dagoela. Hondoan, Txofreko zezen-plaza, 1903an eraikia, eta Gros auzoko txalet batzuk, besteak beste Bermejillo doktorearena

lehen planoan, gaur egun Kolon pasealekuaren hasiera litzatekeen tokian, arbitrioen etxola zuriaren atzean.

Honako hau oso adibide egokia da STMren Gregorio González Galarza argazki funtsaren berri emateko.

Argazkilariak, bizi zelarik, argitaratu zituen postalen bildumaren zernolakoak erakusten dizkigu. Irudiok, historialariek ez ezik, postal zaleek eta bilduma-egileek ere bereziki preziatzen dituzte, postalaren historian Thomas, Hauser eta Menet, Mayor Anaiak eta garaiko beste firma garrantzitsuenen artekotzat jo ditzakegu eta.

ALDIZKARI ILUSTRATUAK

Nabarmendu beharreko beste alderdi bat goian aipatua izan da: gipuzkoar firma honen irudiak garai hartako euskal aldizkari grafiko gailenetan agertu zirela: *Novedades (El pueblo Vasco)* egunkariak argitaratuta) eta *Vida Vasca* batez ere, baina baita nabarmendu behar dira, inpresioaren kalitatearen handiengatik, 1932ko *Guipúzcoa turística y aristocrática* aldizkaria eta 1934ko *San Sebastián* aldizkariaren 1. zenbakia ere.

Adibideok adierazten digute argazki firma honek parte hartu zuela 1909 – 1936 arteko argitalpen inprimatuetan, hau da, Espainiako aldizkari ilustratuaren sorkuntza eta hedapenaren eta fotokazetaritzaren goraldiaren garaian.

XX. mendeko 20ko eta 30eko urteak Espainian aldizkari grafiko eta fotokazetaritzaren sorkuntza eta loraldiaren hamarkadak izan ziren; horra hor, horren erakusgarri, *Blanco y Negro* astekaria eta *Nuevo Mundo* eta *Mundo Gráfico* aldizkariak.

Orain dagokigun honetan, *Novedades* aldizkaria izan zen garaiko argitalpen ilustraturik inportanteena, 1909ko ekainean abiatu eta 1929ko iraila arte iraun zuena, Rafael Picavearen zuzendaritzapean. Bertan parte hartu zuten, Galarza firmaz gain, orduko argazkilaririk onenek.

La actualidad regional



Bilbao.—Entierro del concejal republicano del Ayuntamiento, don José López y Larrazábal.



Guipúzcoa.—Aurreku bailado en el monte Liernia, por varios seguranos, con motivo de la visita á la ermita que se venera en dicho monte.



Los discípulos del conocido maestro don Gabriel Bourdette organizaron días ha una reunión que tuvo lugar en la Sala de Armas y Cultura Física del Gran Casino. Esta reunión se dió en obsequio al famoso doctor esgrimista M. Edom, que permaneció unos días entre nosotros.

Fots. Tori, Galarza y Lecuona.

Tort-ek, Galarzak eta Lecuonak hurrenez hurren sinatutako argazki bana erakusten dizkigu *Novedades* aldizkariako orrialde ilustratu honek. Haatik, gutxi dira argitalpen honetan Galarza firmak txertaturiko irudiak.

1924 eta 1981. urteen artean argitaratutako *Vida Vasca* aldizkarian, Galarzaren argazkiak 1933tik aurrera agertzen hasi ziren, eta bertan haren lan gehiago aurkitzen da, goian aipatutako *Novedades* aldizkarian baino.

Novedades aldizkaria. 1913. San Telmo Museoa.




Honako honetan, gipuzkoar estudio honek Pasealeku Berriko olatuen zikloari buruz egindako irudietako bat inguratzen duen abangoardiako diseinu grafikoa ikus daiteke.

Galarzaren *Olatuak pasealeku berrian*, 1935. *Vida Vasca* aldizkarian.


Koldo Mitxelena Kulturunea
Giuuzkoako Foru Aldundia.

Segidan erakusten ditugun beste bi adibideak ere Errepublikaren garaian argitaratutako aldizkari banakoak dira; alabaina, merkatuan biek ala biek osoaldi laburra egin zutena: *Guipúzcoa turística y aristocrática* eta *San Sebastián*.

Bertan, irudiak beren horretan aurkezten dira; lehendabizikoan hiriaren ikuspegia Uliatik hartuta agertzen da, eta bigarrean, Kursaal kasinoaren eta Alderdi Ederreko kasino zaharraren ikuspegiak gainkatzen diren muntaketa bat da.



Guipúzcoa turística y aristocrática, 1932. urtea. Hiria Uliatik ikusita.
Koldo Mitxelena Kulturunea - Gipuzkoako Foru Aldundia.



San Sebastián, 1934. urtea. Kursaal eta Alderdi Ederreko Kasinoko irudiak dituen fotomuntaketa.
Donostiako Liburutegi Nagusia.

LANA ESTILOA EGILEAK

XX. mendeko lehen urteetatik Gregorio González Galarzak eta Carmelo González Campanok estilo aldetik ia aldaketarik gabe elkarrekin egindako lana, gerra ondoren oraindik orain postal eta argitalpen batzuetan agertzen zen; baina aurreko hamarkadetako irudien kopiak izaten ziren, askotan ez izenbururik ez egilerik adierazten zutenak, 40ko urteetan firmak zuen egoeraren eta oro har herrialdeko egoera ekonomiko eta politikoaren ondorioz.

Firmak ikusten duena dokumentatzen du, eta batzuetan negatiboak ukitzen dituen arren – xehetasun eragozgarriak edo kontrastea kenduta, zeruak “dramatizatze” asmoz-, irudiak “neutroak” direla esan liteke.

Ikuspegi orokorrak izan ohi dira, eskuko hauspo-kamera – Premo kamera eta Mentor kamera 13 x 18 eta 12 x 9 cm-ko xaxisarekin– eramangarri hiriko ikuspuntu estrategiko batetik eginak; hots, toki garaiak hautatzen dituzte, ikusmen onekoak, eguraldi garbikoak eta argi-contraste nabaririk gabeak, al baita eta informazio gehien berenganatu ahal izateko, postalen izenburuek ederki adierazten dutenez, deskribatzaile hutsa izaten dira eta: “Santa Katalina zubia eta Gros auzoa”, “Kursaaleko zubia”, “Kontxako badia”, eta halakoak.

Beharbada, eskema honetatik gehien aldentzen den saila Pasealeku Berriko olatuena da, askotan argazki egindakoa, 1916an pasealekua eraiki orduko oso motibo ospetsua zelako.

Argazkirik zaharrenak 1870 eta 1905 artean datatuak daude eta ez dira Galarza firmadunak, Marín eta Oterorenak baizik (13), haiekin harremanetan egon zela badakigu eta. Bai Miguel Aguirre Aristeguieta bai G. G. Galarza Hermenegildo Oteroren

13. Rodríguez Molina, M^a J.; Sanchís Alfonso, J. R.: *Directorio de fotógrafos en España*. Valentzia. 2013. 819- 820. orr.

ikasleak izan ziren, eta hau 1905ean zendu zenean, argazkilari biek heredatu zuten haren argazkietako asko.

Estiloarengatik, data hartatik aurrera argi baieztatu dezakegu Galarzaren egiletza, hirigintza berriaren izaera aristokratiko eta kosmopolita harrapatu nahian betiere: Groseko zabaltza eta eraikin berriak (1905 -1928) Urumearen bideraketa eta espigoiaren eraikuntza (1911 ca.), zubien eraikuntza (Maria Cristina, 1905; Kursaal, 1921), Amarako zabaltza (1922), Antiguako auzo berria (1925), Igeldoko jolasparkea (1912) Uliako parkea (1907), zezenketen inguruko argazkiak Txofren, Kontxako hondartza, Erdialdeko kaleak. Haiekin batera, Gipuzkoako herrien ikuspegi interesgarriak, bai eta balio etnografikoko handiko irudiak ere, Donostiako Loiola auzokoak, esaterako.

Ondare eta dokumentazio aldetik, balio handiko irudiak dira Donostiako argazkilaritzaren historia egiteko, esan bezala; alabaina, xede komertziala zutenez, estilo aldetik kontserbadore samarrak dira, urte haietako abangoardiako korrante europar eta iparramerikarretatik aldenduak.

Urte haiexetan gerrarteko fotokazetaritzan ziharduten Pascual Marínek eta Photo Cartek izaera dokumental eta kazetariaren argazkilaritzatik bereiz, eta Willy Koch argazkilariak Donostiako Askatasun hiribideko 20.eko estudioan egiten zuen izaera artistiko argazkiak ez bezala –bi adibide nabari baino ez jartzearren-, Gipuzkoan XX. mendeko lehen erdialdean egiten zen xede komertzialeko argazkilaritza dokumentalaren adibiderik behinena dugu.

IRUDI ESANGURATSU ZENBAITEN IRUZKINA



1- F-005482

Gregorio González Galarza

Olatuak olatu-horman.

Donostia, 1921-1928.

Kristala gelatinarekin.

13 x 18 cm.

Aldamar kalearen eta Salamanca pasealekuaren arteko zabaltza eraiki orduko, kale haien bukaeran abiarazitako pasealekurako arroken kontra jotzen duten olatuen talkena da hirian erakarpen gehien duten ikuskizunetako bat. Lehen planoan, garaiko auto bat ikusten dugu, argiontzi baten ondoan, eta jendea hurbil, ikuskizunaren zain. Hondoan, Kursaal eraikina.

Kursaaleko zubia eta kasinoa 1921ean eraiki ziren, eta hark adierazten du

nolako garrantzia zuen jokoak hiriaren historian, aurrekariak Indo jauregiko kasinoa (1869) eta Alderdi Ederreko kasinoa (1887) zirela.

Bestetik, Pasealeku Berria oso toki herrikoia zen donostiarrentzat 1916 eta 1919 artean eraiki zuten gerostik. Hainbat izen eman zitzaion: Asturiasko Printzearen Pasealekua, Errepublikarena, Primo de Riverarena, eta azkenik Pasealeku Berria, herritarrek ematen ziotena.

Ondare aldetik, dokumentu hau Pasealeku Berriko olatuen gaia duten argazki-saileko bat da, hain zuzen arrakasta komertzial handia zuelako gerora hamaika aldiz errepikatutako sailari hasiera eman ziona. Egileak ikuspuntu garai bat hautatu ohi du:

Urgullerako igoera, bai Pasealeku Berritik bertatik, bai San Telmo Museotik, eta handik egiten du argazkia, kontrapikatuan; bestela, irudia olatu-hormatik beretik egiten du, horma erakutsita edo gabe.

Teknikoki, mugimendua harrapatu ahal izatea da interesgarriena, olatua gain-gainenean, edo aparretan hausten den unea. Horrek itxoiteko denbora, obturazio-abiadura handia eta irudi ahalik eta ikusgarriena hautatzea eskatzen du. Galarzaren argazkiak eta Pascual Marínenak alderatuta diferentziak ikus ditzakegu. Marínen argazkiek badute kutsu pertsonalagorik, eta Galarzarenak neutroago agertzen dira.



2- F-006220
 Gregorio González Galarza
Transbordadore funikularra
Ulia mendian.
 Donostia, 1907-1912.
 Azetatoa.
 9 x 14 cm.

Hona hemen Uliako transbordadorearen saskia, barruan hiru gizon eta bi emakume daramatzala, Ulia gaineko askalategi aldera iristear. Han beste lau lagun zain daude: bikote bat eta platerkapeluko uniformedun gizon bi.

Irudi honek Leonardo Torres Quevedo ingeniariaren mendi-garraiorako aire bidezko lehen tranbiaren jarduna erakusten digu. Hiriko turismoaren loraldian, erakargarri turistikoarena egin zuen. 28 metro garaiko eta 280

metro luzeko desnibela gainditzen zuen, eta Erregearen haitza eta jatetxearen aldea hiru minututan lotzen. Garai hartan mundu guztia harri eta zur utzi zuen garraio bide berritzaile hark Uliako jolasparkearen diseinuarekin bat zetorren, intereseko beste zenbait osagai ere biltzen zituen eta: Ategorrietatik igotzen zen trena, usakume-tiroa, bere askalategia eta guzti, Baleazalearen, Erregearen eta Arranoaren Haitzak, arroka naturalen gainean barandak jarrita eginak.

Garaioko industriagileek sustatutako proiektu osoa laster geratu zen bazter, 1912an Igeldo Mendiarena zabaldu zen eta. Hiriak ekialdera zabaltzen jarraitu beharrean, Antigua auzora jo zuen, 1893az geroztik hantxe baitzegoen Miramar Errege-jauregia.

Irudiak, bada, garaiko asmakizun harrigarria jasotzen du, bai eta urte haietan zabaldu ziren jolasparkeen hasiera ere: Ulia, Martutene eta Igeldo; haietarik, behin-betiko bakarra Igeldokoa izan da.

Argazki hau jolasparkeko osagai guztien berri ematen duen sail oso baten ale bat da. Irudi deskribatzaileak dira, eta deigarriak dira agertzen diren pertsonaien janzkerak, aisialdiari eta hiriko ikuspegiaren gozatzeari emana dagoen aristokraziaren kideak direla erakusten dute eta.



3- F-006527

Gregorio González Galarza
San Ignazio Eliza eta inguruak.
Donostia, ca. 1915.
Azetatoa.
9 x 14 cm.

Padre Larroca kalearen ikuspegia, Donostiako Gros auzoan, hondoan motibo nagusia San Ignazio elizaren fatxada duela. Alboetan, Viteri Eskolak, eta atzean, Zabaleta kaleko txalet batzuk eta itsasoa.

Dokumentazio aldetik, intereseko elementuak agertzen zaizkigu irudi honetan. Alde batetik, José Goicoak

estilo neogotikoan egindako San Ignazio eliza, 1897an inauguratua, dorrea 1928ra arte eraiki ez bazen ere. Beste aldetik, Viteri eskolak, Biarritzen finkatutako Pedro Viteri Arana (1833 – 1908) filantropo milioidun arrasatearraren diruari esker eraikiak. Bere sakelaz ordaindu zuen Esteban Garibayren etxearen zaharberritzea, udal epaitegia izateko. Arrasaten fundatu zuen lehen eskola, 1902an, eta gerora Errenterian, Pasai Donibanen, Pasai Antxon, Irunen, Donostian (1905) Aretxabaletan, Hernanin eta Urnietan eraiki zituen. Badago intereseko beste elementurik irudian, tranbia, baita Zurriolako itsas horma ere, 1911n eraikia.

Irudia Miracruz kaleko eraikin garai batetik egina da, eta ederki erakusten du nolakoa zen Groseko alde hau 20ko urteetako erreformak baino lehen. Ondare aldetik, bada, badu baliorik.



4-F-006592
Gregorio González Galarza
Txofre zezen plaza.
Donostia, 1903-1948.
Gelatina paper gainean.
9 x 14 cm.

Irudiak agertzen duen unea toreroak zezenari bigarren banderila-parea jartzen dionekoa da. Mendekoak eszenatik urrun daude eta hondoan Donostiako Txofreko zezen-plazako barrera eta tendiduko 3. eta 4. zenbakiak ikusten dira.

Irudi hau argazkilaria Txofreko zezen-plazan Lehenengo Mundu Gerra aurrean eta ondoan egindako zezenketa-eszenei

buruzko argazki-sailtako bat da. Gros auzoko plaza hau 1903an eraiki zuten, Atotxan zegoenaren ordez, eta 1974an eraitsi. Suerte desberdinen une gorenak jasotzeko irudiak izaten dira: kapotea, muleta eta lidia (hagak, banderilak eta zezenaren hilketa).

Irudiaren testuingurua Donostiako Aste Nagusiaren jai-giroan kokatu behar da. Aste hura José Arana enpresa-gizonak asmatu zuen, Atotxako zezen-plaza eraiki zuen berbera; hain zuzen, plaza 1876ko uztailearen 16an inauguratzeko jaia sustatze aldera erabili zuen "Aste Nagusia" eslogana. Zezenak ziren jaiaren ardatza, baina haiekin batera

musika-kontzertuak eta su artifizialak ere egiten ziren.

Dramatikotasun handiko irudia da, pixka bat mugitua, banderilak iltzatzeko unean bertan harrapatua.

Ondare aldetik, hiriko dirudunek abuztuko Amabirjinaren jaiaren inguruan egiten zituzten ospakizunei lotutako tradizioa eta garaia da. Haren aldaera herrikoia sokamuturra zen, Alde Zaharrean egiten zena, eta arriskutsua zelakoan 1902an behin betiko debekatua, polemika handiz, haatik.



5- F-005663

Gregorio González Galarza
Bainuzain taldea Kontxako hondartzan.
Donostia, ca. 1920.
Kristal gelatinarekin.
13 x18 cm.

Sei emakume argazkilariauren aurrean irribarretsu pausatu dira Donostiako Kontxako hondartzan. Haietako bi eserita daude eta puntu egiten ari dira, eta besteak atzean daude. Irudiaren eskuin muturrean “*bainatzaile*” batek txabusina bat darama, bainuaren ondoren bainu-hartzailea lehertzeko.

Itsas bainuena goi mailako klaseek XIX. mendean hartutako ohitura zen, XVIII. mendearen bukaeran eta hurrengoaren hasieran Britainia Handian

eta Frantzian ikerketa higienistak zabaldu ondorengo. Medikuek osasuna hobetzeko gomendatzen zituzten. XX. mendearen lehen erdialdean dirudunen jardunbide izaten jarraitzen zuten, harik eta Bigarren Mundu Gerraren ondoko turismo masiboak bere egin zuen arte.

Bainatzailea langile bat zen, bainatzera zihoazenak itsas ertzeraino laguntzen zituena. Bainu-hartzailea jaso eta uretaraino eramaten zuten, eta maindire garbi eta lehorrak eskaintzen. Bainatzaile gizonetzko zein emakumezkoei hainbat etxola esleitzen zitzaizkien. Toki finkoa zutenez, jendeak ezagutu eta preziatu egiten zituen. Gizonetzkoek gizonak eta mutikoak zaintzen zituzten, eta esku-hutsik eta hanka-hutsik uzten zituzten bi piezako

arropa urdina jantzen zuten, eta askotan egun osoan ematen zuten bustita. Emakumezkoek irudian ikusten den soinekoa jantzen zuten. Lanbide hau udaldira mugatzen zen, etxola-jabeen jarduna bezala, uda sasoiaren beren izena zeramaten bainu-etxolak alokatzen zituzten eta.

Uda sasoi bainauekin lotutako lanbideei buruzko irudi interesgarri eta hurbila da hau. Hiri paisaien edo arkitekturen argazkiak neutroak izaten badira ere, honako honetan G. G. Galarzak Kontxako hondartzako langile emakumezkoen irudi goxo eta hurbila eskaintzen digu. Izaera etnografikoko argazkietan ere aurkitu ohi ditugun ezaugarriak ditu, bada.



6- F-005171

Gregorio González Galarza

Ondarreta hondartza eta Igeldo mendia.

Donostia, ca. 1912.

Kristala gelatinarekin.

13 x 18 cm.

Ondarretaren ikuspegia. Murrak alderdi militarra eta hondartza bereizten ditu. Zaldizelaia ikusten dugu lehenik, eta Ondarretako kartzela atzerago. Honen gainean, Toki Eder etxaldea. Eskuinean, hondarrean, bainu-etxola batzuk; atzerago, funikularraren geltokia eta trenbidea, oraindik bukatzeke dagoen jolasparkera igotzekoa. Arbizketa harrobiaren gainean Boltsagilene⁽¹⁴⁾ baserria ikusten da .

Igeldoko funikularra Emilio Huici ingeniariak diseinatu zuen, eta María Cristina erreginak inauguratu, 1912ko abuztuaren 25ean. 312

m luze da, eta Espainiako hirugarren zaharrena, Tibidabokoa 1901ean eta Vallvidrerakoa 1906an eraiki zituzten eta.

Haren inguruan eraiki ziren mendi maldako etxaldea. Gailurrean, aldiz, itsasargi zaharra, Txubilloko dorrea. Haren inguruan eraiki zuten jolasparkea, hiriaren gainean sekulako ikusmirak eskaintzen zituen eta.

Parke honek, praktikan, Uliako eta Martuteneko parkeak ordeztu zituen. Azken biok ekialdean egin ziren, hiria Pasaia eta Frantzia aldera zabalduko zelakoan.

1893an errege-erreginen egoitza izateko Miramar eraiki ondoren, eta behin Alderdi Ederreko lurren permuta egin eta gero Antigua auzoko hondartza aldea militarren eginkizunetarako erabilita, auzoak izaera militarra hartu zuen, nolabait, eta hala izan zen gutxienez 1948an kartzela eraitsi zen arte.

Irudi hau pasealekuaren hasieratik hartua da, eta egilearen ezaugarri bereizgarrietako bat da, normalean honelako plano orokorrak egiten ditu eta. Oraingo honetan, erabilera berrien arabera aldatzen ari deneko alderdia erakusten digu, ordurako ere lbaetaraino iristen zen lintzuratik gero eta gutxiago zeukan eta.

Hautatutako irudiok ederki erakusten dute nolako edukia duen Galarza firmaren argazki funtsak. XX. mendeko lehen bi hamarkadetan hartutako irudiak dira gehienbat, eta etengabe zabaltzen ari zen hiri baten fisionomia ez ezik, bertako jendeak eta jaiak ere agerrarazten dituzte.

Hiriaren garai historiko zehatz baten berri emateko balio duten irudiak dira, bada.

14. Antigua 1900. Txillardegia, Kutxa 1993

BIBLIOGRAFIA

OROKORRA

- AGOTE, X.
Gure itsasontziak. [Donostia-San Sebastián]: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2009
- AGUIRRE FRANCO, R.
El Cantábrico entre la vela y el vapor. Una cultura común. San Sebastián: Txertoa, 1994
- AGUIRRE FRANCO, R.
El puerto de San Sebastián = Donostiako kaia. [Vitoria-Gasteiz]: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, 2001
- ANABITARTE, B.
Gestión municipal de San Sebastián: (1894-1900). 2ª ed. San Sebastián: Grupo Dr. Camino de Historia Donostiarra, Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, 1974
- ARANBURU, G; EGAÑA, J.
Ehun urte iruditán= Cien años en imágenes: Euskal Herria 1870-1970. Iruñea: Astero, 2010
- ARTESANO GARICANO, C.
Gure Aiete= Nuestro Aiete. Donostia-San Sebastián: Kutxa Fundazioa, 2009
- ARTOLA, M.
Historia de la reconstrucción de San Sebastián. San Sebastián: Ayuntamiento San Sebastián, 1963
- ARTOLA, M.
Sitio de San Sebastián en 1813. En: Revista de la Universidad de Madrid n°17 (Año 1956)
- ARTOLA, M.
La reconstrucción de San Sebastián: (1814 -1820). En: Revista de la Universidad de Madrid n°18 (Año 1956)
- AZKUE, DIONISIO DE.
Mi pueblo, ayer: (croquis donostiarra). San Sebastián: Ricardo de Leizaola, [1932]
- BANÚS Y AGUIRRE, J.L.
El San Sebastián de antaño. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1988
- Donostiako alde zaharraren berreraikuntza = La reconstrucción de la parte vieja de San Sebastián*. Donostia-San Sebastián: Udala-Ayuntamiento, 1991
- ELORZA, M.
Espejo de un tiempo pasado: el País Vasco y la revista Novedades, 1909-1919/1928-1929. Donostia: Kutxa Fundazioa, 2011
- Exposición Fotográfica de González Galarza: San Sebastián. 1900-1920* [En: *Actos Conmemorativos de la Reconstrucción y Expansión de la Ciudad, 1813-1863-1963*]
- FERNÁNDEZ ANTUÑA, C.
Informe sobre el fondo Galarza adquirido en 2001. Donostia: San Telmo Museoa, 2003
- GRANDIO, Y.
Urbanismo y arquitectura ecléctica de SS: 1890-1910. San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1987 Revista Internacional de Estudios Vascos. 1988
- Gros artean: Imagen de un barrio Erakusketa/ Exposición* Okendo Kultur Etxea. 2004] Donostia-San Sebastián: Donostia Kultura, 2004
- Guía Catálogo de la Exposición San Sebastián a través de su historia*. San Sebastián, Comité Ejecutivo de las Commemoraciones Centenarias de la Reconstrucción y Expansión de la Ciudad, 1963
- IRIXOA CORTÉS, I.
Pasaia: hastapenak (XVIV-XVI. mendeak) = Orígenes (siglos XIV-XVI). Pasaia: Pasaiaiko Udala, 2009
- Itsas marruma: viejas imágenes fotográficas del litoral vasco, 1850-1960*. Untzi Museoa- Museo naval, 2002
- JAUREGI, J.
Egia: gure auzoa = nuestro barrio. [Donostia: Zai-Zoi Koordinadora Kulturala], 2002
- KURTZ, G; ORTEGA, I.
150 años de fotografía en la Biblioteca Nacional: guía-inventario de los fondos fotográficos de la Biblioteca nacional de España. Madrid: El Viso, 1989
- La fotografía en España: de los orígenes al siglo XXI*. En: SUMMA ARTIS. Historia general del arte. vol. XLVII. Coord. J. Miguel Sánchez Vigil. 2001
- LÓPEZ MONDÉJAR, P.
Historia de la fotografía en España. Madrid: Lundberg, 1997
- LÓPEZ MONDÉJAR, P.
Historia de la fotografía en España: fotografía y sociedad, desde sus orígenes hasta el siglo XXI. Barcelona: Lundberg, 2005

- LÓPEZ MONDÉJAR, P.
Las fuentes de la memoria. Barcelona: Lunwerg, 2008
- LUENGO, F.
San Sebastián: de su destrucción a la ciudad contemporánea (sus gentes, costumbres, imagen, sociabilidad). San Sebastián: Txertoa, 1999
- LABORDA, J.
Arquitectos en San Sebastián: 1880 – 1930. Donostia: COAVN, 2008
- MARAÑA, F.
Donostia calle a calle, kalez kale. Legazpi: Zum Edizioak, 2011
- MUÑOZ ECHEBAGUREN, F.
San Sebastián, el derribo de las murallas: el río Urumea y los ensanches. En: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián, n 36 (2002), orr. 243-360
- MUÑOZ ECHEBAGUREN F.
Gros auzoa. Donostia-San Sebastián: Donostia Kultura, 2000
- Novedades: revista semanal ilustrada*. San Sebastián: [s.n.], 1909-1919, Bilbao: [s.n.], 1928-1929 [N. 1 (27 eka. 1909)-zk. 390 (15 ots. 1919); 2. garaia, zk. 391 (ab. 1928)-zk. 397 (ots. 1929).
- PALÁ LAGUNA, Francisco.
La tarjeta postal ilustrada. En: *Los Sitios de Zaragoza en la tarjeta postal ilustrada*.
- TURMO MOLINOS, José María (dir.).
Zaragoza: Fundación 2008, 2004.p. 33-45
- PIRALA, Á.
San Sebastián en el siglo XIX. Donostia-San Sebastián: Kutxa Fundazioa= Fundación Kutxa, 2001. Reprod. fács. de Madrid: Librería Hernando y Compañía, 1900.
- RIEGO AMEZAGA, B.
España en la tarjeta postal. Un siglo de imágenes. Madrid: Lunwerg, 2010
- RODRÍGUEZ MOLINA, M^a J;
SANCHÍS ALFONSO, J.R.
Directorio de fotógrafos en España (1851-1936): elaborado con la información que proporcionan los anuarios y guías comerciales. Valencia: Archivo General y Fotográfico de la Diputación de Valencia, 2013
- RODRIGUEZ SORONDO, M.C.
Arquitectura pública en la ciudad de San Sebastián (1813 – 1922). San Sebastián: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1985
- SADA, J.
La historia de San Sebastián a través de sus calles. San Sebastián: Txertoa, 1995
- SADA, J.
Historia de la ciudad de San Sebastián a través de sus personajes. Irun: Alberdania, 2002
- SAGUES, X. ,RA J.
Aintzinako Euskal herriko bizimodua postal irudietan = *Imágenes de la vida tradicional vasca a través de la antigua tarjeta postal* = *Images de la vie traditionnelle basque à travers la carte postale ancienne*. Iruña: Ortzadar Euskal Folklore Taldea, 1999
- SÁNCHEZ VIGIL, J.M.
El documento fotográfico: Historia, usos, aplicaciones. Gijón: Trea, 2006
- TEIXIDOR, C.
La tarjeta postal en España, 1892 – 1915. Madrid: Espasa, 1999
- TELLABIDE, J.
Donostiako toponimi erregistroa: gaurkoa, historikoa, geografikoa, deskribatzailea: elkarpen etnografiko, mitologiko eta herrikoiez osatua = Registro toponímico donostiarra: actual, histórico, geográfico, descriptivo: completado con aportaciones etnográficas, mitológicas y populares. Donostia-San Sebastián: Kutxa, 1995
- TXILLARDEGI.
Antigua, 1900. Sociedad guipuzcoana de ediciones y publicaciones, 1993
- VILLANUEVA, I.
1813 – 1863. Diez lustros de una ciudad: San Sebastián (1813-1863). San Sebastián: Patronato municipal de Bibliotecas y Casas de Cultura, 1989

Artxibategiak

<http://www.guregipuzkoa.eus>

FOTOTEKA KUTXA

Hemeroteka digitala
Gipuzkoako Foru Aldundia

STM

San Telmo Museoa

GREGORIO GONZÁLEZ GALARZA

SAN TELMO
MUSEOAREN
ARGAZKI FUNTSEAN

Argitaratzailea

San Telmo Museoa, Donostia Kultura

Ikerketa

Elisa Querejeta Casares

Itzulpena

Xabier Kerexeta Erro

Maketazioa

Ytamos

Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia / San Sebastián
T (00 34) 943 48 15 80
F (00 34) 943 48 15 81
santelmo@donostia.eus

www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura